

# KUOTAK

Familiak Haurreskola irekita egongo den 208 eguneko arreta zuzenagatik ordaindu behar duten kostua 11 hileko kuotatan zatitu egiten da, hilabete bakoitzean Haurreskola irekitzen den egun kopurua kontutan izan gabe.

Haurreskolako hileko kuotaren kalkulua, familia unitatearen errenta estandarizatuaren arabera egingo da.

Kuota tartea	Kuota tartea	8 ordu arteko kuota	5 ordu arteko kuota	Egokitzapen hilabeteko kuota
1	< 10.000 €	118 €	91 €	91 €
2	>10.000 € eta <15.000 €	180 €	140 €	140 €
3	> 15.000 €	208 €	160 €	160 €
<b>AURRETIAKO KUOTA</b>	<b>91 €</b>			

Errenta estandarizatua, familia unitatearen azken ekitaldiko oinarri zergagarri orokorraren eta oinarri zergagarriaren PFEZ aurrezkiaren batura da, familia bakoitzaren baliokidetasun koefizientearekin zatituta (\*1).

(\*1) Familia bakoitzaren baliokidetasun koefizientea, hurrengo baremoaren arabera familia bakoitzari ematen zaion puntuaketen baturaren arabera eskuratzen da:

- Bi gurasoz osatutako familia unitatearen partaide den eskatzailea: 1,0.
- Ezkontide edo izatezko bikotea: 0,5.
- Ezkontide edo izatezko bikoterik gabeko eskatzailea: 1,3.
- Genero indarkeriaren biktima den eskatzailea: 1,3.
- Familia unitatearen partaide den seme alaba bakoitza: 0,3.
- %33 ko edo gehiagoko onarturiko elbarritasuna duen familia unitateko ki-deak: 0,3 gehiago.

Kasu bakoitzean eskuduna den erakundeak behar bezala luzatutako dokumentuak egiaztatzen dituen egoerak bakarrik hartuko dira kontutan (\*2). Izen emate epea itxi eta hileko kuotak kalkulatu ondoren, onartu eta ez-onartuen behin behineko zerrendekin batera egokitutako kuota tartea argitaratuko dira haurreskolan bertan eta [www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus) web orrian.



Erreklamazio epea amaitu ondoren, onartuen behin betiko zerrendekin batera, behin betiko kuota tarteak argitaratuko dira.

Haurreskolak Partzuergoko zerbitzua erabiltzen duten familiek ezingo dute parte hartu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura sailaren beken deialdian.

(\*2) Familiaren urteko errentari buruzko dokumentazioa aurkeztuko ez bahlitz, dagokion ordutegiaren kuotarik altuena aplikatuko da.